

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

BALIABIDE FISIKOAK

Instalazioak: Erabiliko dugun instalazioa Bosch izango da.

Bulegoak: Proiektua aurrera eramateko, bulego bat alokatuko dugu, 100m karratu izango ditu eta enpresa ondo badoa, mailegu bat eskatuko dugu bulegoa erosi ahal izateko.

Ibilgailua eta banaketa sarea: Ez dugu ibilgailu propiorik erosiko, banaketa lana egiteko beste enpresa batzuk kontrolatuko ditugulako, adibidez, seur, correos, etab.

Makinak: Enpresan makina batzuk erabiliko ditugu, inprimagailua eta ordenagailuak.

Sistema informatikoak: Honetaz gain, sistema informatikoak beharko ditugu, hau da, datu baseak, bertan informazioa gorde ahal izateko. Datu baseekin, bezeroen, langileen eta produktuen informazioa jakin dezakegu, eta horrela bezeroei bere urtebetetze egunean edo asko erosten badute deskontuak egingo dizkiegu.

Salmenta puntuak: Ez dugu denda propiorik izango, produktua online, farmazietan edota dietetika dendetan salduko baita.

BALIABIDE INTELEKTUALA

Baliabide intelektualetan ondorengo puntuak garatu ditugu:

Marka: Gure enpresaren marka LIN izenekoa izango da, eta ondorengo logoa diseinatu dugu.



Patenteak: LIN enpresak ideia patentatuko du erregistroan inork lapurtu ez dezan.

Elkarteak: Elkarateak sortuko ditugu, bai Telegramen baita beste sare sozialetan ere osasuna zaindu nahi duten pertsonen elkarte bat sortuko dugu, eta iada gaixotasunen bat duten pertsonen elkarte ere.

Datu baseak: Datu base bat erregistratuko dugu, alde batetik bezeroenak: bezeroak erregistratuta edukitzeko eta jakiteko zenbat erosten diguten urtean, zein banaketa kanal erabiltzen duten erosteko, promozio pertsonalizatuak egiteko, etb... Banaketa kanalean datu baseak sortuko ditugu.

GIZA BALIABIDEA

LIN enpresak bost partaide izango ditu. Honetaz gain, Web-orria sortzeko langile bat beharko dugu, baina gero guk eramango dugu aurrera. Lan taldeak ezaugarri hauek izango ditu:

Sormena: Sormena beharko dugu web-orriaren diseinua aurre definitzeko; produktua diseinatzeko; promozioak egiteko; eta produktua modu berritzailean merkaturatzeko.

Ezagutza: Produktua eta merkatua ondo ezagutuko ditugu, gaur egun dauden prezioa, bezeroen nahiak, etab, jakiteko lagungarriak izateko.

Gaitasun komertziala: Gaitasun komertziala izango dugu produktua saltzeko eta bazkide berriak gure lan taldean sartzeko ere.

FINANTZA BALIABIDEAK

Eskudirua: Bakoitzak bere aurrezkietatik eskeintzen duen zati dirua erabiliko dugu, baina denak diru kantitate bera edo gutxi gorabehera berdina jartzen saiatuko gara. Horrela, enpresako partaide guztiak mailakatuta egongo gara. Bazkide bakoitzak 3000€ inguru jarriko ditu, eta bost partaide garenez, guztira 15.000€ lortuko ditugu.

Kreditu- lineak: Finantza erakunde bati 30.000 € ko mailegua eskatuko diogu negozioaren lehen urratsak emateko.